

karzki papertxo abek. Iruña'ko Udalak eragin duen idazki-batzalditik datoz; ta papertxo oyen egileak aipatu bear dira noski. Aita Pastor Afayoz'ek mila ta bosteun; Aita Polikarpo Iraizoz'ek seireun ta Karmengo Aita Elias ta Juan Garbizu jaunak laureuna dakarzkite.

III.—Aita Justo Mokoroa'k, Juan B. Agiré'ren *Platikak* ondo aztertzea, bere gain artu-ta, biali dizkigu itz-beñi, aldakuntz, joskera ta esaerak Azkue'ren Iztegian idoro ez diranak. Euskaltzaindiak begi onez ikusten du Mokoroa jaunaren ařeta ta beroni zorionak damazkiyo, are-eta beste liburu antzindařetan beste ainbat egitea erabaki duelako, argitarako darabilkigun Iztegiyaren ornigari.

IV.—Azkue jaunak Mendiburu'ren *Otoitz-gayak* dirala-ta txosten bat dakar, auxe beriz laurdenka zatitua: 1.º Liburu ořetzaz Azkue berak daukan iritziya; 2.º 1768-tik 1904 arte egin diran liburu ořen elastaldiyak; 3.º azkeneko bi elastaldiyak dakarzkiten erazkin edo *apendizak* ta 4.º Liburuak bereziz dakarzkien adizkerak (flexiones verbales).

Ta beste gai batzuek bigaramonerako laga-ta ototzez amaitu da batzařaldi auxe.

Bilbo'n, Euskaltzaindiaren etxean, 1927'ko Ilbeltza'ren 28'an.

Auřeko agiriyan aipatzen diran euskaltzain berak batzařaldira datoz eta urgazletatik Belaustegigoitia'tar Perderika jauna.

Azkue maipuru eta berak egin du asierako ototza.

I.—Diru-zai ordekoak Euskaltzaindiko diru goraberak zeatzkiro azaldu dizkigu, ta urte ontan erabili

genezaken diru pilaren beñiya ere bai. Ontzat eman du Euskaltzaindiak agerbide auxe.

II.—Lakonbe jaunak Duronea apezaren eliz-liburu bat irakuñi ta aztertu du. Bertatik ikasbide asko atera ditu, bai euskal-itzañi bai aditzari dagozkiyonak.

III.—Eguskitza jaunak bila ta bila dabil non idoro euskal-itzañi berri edo eskutuak Iztegiyari ezartzeko. Oraingoz *Kresala* Agirre zanaren irakurgaya ongi aztertu du.

IV.—Aita Intza'k beste euskaltzañien laguntza eskatzen du Dotriñan datozen galdera ta erantzunai bear dan argiyen ta eraxenen idazteko.

V.—Lakonbe'k irakuñi dizkigu Bonaparte ta Intxauspe'ren arteko eskutitzak.

VI.—Azkue'k beriz oraintxe idatzi duen bere irakurgai *Latsibi*. Berak ez daukala elestari izateko gogorik-eta edozeñi eskeñiko liyoke argitaratzea.

Ta beste gairik izan ez-ta amaitu da batzañaldi au oiturazko otoitzez.

Iruña'n, Aldundi-Jauregian, 1927'ko Otsaila'ren 24'an.

Euskaltzain jaun abek batzañaldira datoz: Azkue, Kanpion, Urkijo, Landeñetxe, Olabide, Intza, Intzagarai, Lakonbe, Etxegarai ta urgazletatik Irigarai Fermin jauna.

Otoitzez asi da batzañaldia.

I.—Napañoa'ko *Euskeraren adiskideak* agur egin nai liyoke Euskaltzaindiari. Onek bigar amabiterdientan abegi egingo diyo batzañaldiko gela ontan.

II.—Ormaetxea jaunak Euskaltzaindiari dasayo: Iztegi beñiyaren itzen bilketa dala-ta, askok bialtzen